

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

207/2020 Foru Agindua, irailaren 14koa, interes publikokotzat jotzen duena Lasernako hobi septikoa Casablancako HUArekin lotzeko proiektua, zeinaren zati bat Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean baitago, eta zeina Arabako Errioxako Uren Partzuergoak sustatu baitu

Arabako Errioxako Uren Partzuergoak obra lizentzia eskatu dio Guardiako Udalari, Lasernako hobi septikoa Casablancako HUAra konektatzeko proiektua gauzatzeko. Proiektu hori da Lasernako hiriguneko hondakin urak husteko kanalizazio bat eraikitzea, Casablancako industrialdeko araztegia (HUA) tratatzeko.

Obren barruan, ponpaketa hobi bat eraikiko da egungo hobi septikoen ondoan, ponpaketa ekipamenduetarako etxola bat (HUPE) eta 2.600 metroko burdinurtuzko hodi bat, landa bideetatik igarotzen dena eta Laserna eta San Rafael gunek zeharkatzen dituen, Casablancako industrialdean dagoen hondakin uren sarearekin lotzeraino. Lasernatik San Rafaelera iristen den ur hornidurako hodia polietilenoazko hodiarekin berritzea ere aurreikusten da; hori guztia Guardiako udalerraren hego-ekialdean kokatuta dago.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Urkidetza - Arabako Errioxako Uren Partzuergoak aurkeztutako espedientean dago proiektu teknikoa, baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinetan adierazten baita HUPE instalazioak kokaleku izango duen lurzuria (19 poligonoko 128 lurzuria) lurzoru urbanizaezin sailkatutako eta nekazaritza intereseko babes zona kalifikatutako lursailean daudela, non, udal plangintzako arau subsidiarioen 113. artikuluan ezarritakoaren arabera, erabilera publikoko eta interes sozialeko erabilera, instalazioak eta eraikuntzak baimentzen baitira. Bestalde, proiektatutako hoditeriak erabilera eta jabari publikoko bide saretik igarotzen dira (landa bideak eta kale urbanizatuak), eta, zati batean, lurzoru urbanizaezina zeharkatzen dute, zehazki, "Nekazaritzako Intereseko Babes Zona" eta "Leheneratu beharreko Basoguneeen Babes Zona" gisa kalifikatutako lurrak.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. 2020ko abuztuaren 25ean, Natura Ondarearen Zerbitzuak aldeko txostena bidali zuen, eta adierazi zuen proiektua ES2110008 Ebro ibaia KBEko babes eremu periferikoan dagoela.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berriaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeiguneguz jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Ekainaren 10eko 124/2020 Foru Aginduaren bidez xedatu zen espedienteari hasierako onespena ematea eta jendaurrean ipintzeko 20 eguneko epea hastea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 2020ko ekainaren 26an egin zen, 71. zenbakian. Horretarako emandako epearen barruan ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Bigarrena. - Proiektua interes publikokoa dela esateko, azpiegituraren xedeari erreparatu zaio; izan ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 26.a artikulua jasotako oinarritzko zerbitzu bat ematea du helburu.

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurzoruan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Bat etorritik Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenarekin, interes publikokotzat jotzea Lasernako hobi septikoa Casablancako HUArekin lotzeko proiektua, zeinaren zati bat Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean baitago.

Bigarrena. Ebazpen honen jakinarazpenarekin batera, Natura Ondarearen Zerbitzuak emandako txostenaren kopia igortzea.

Hirugarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Laugarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoan, bi hilabeteko epean. Nolanahi ere, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorritik. Horrez gain, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO